

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko maiatzaren 11an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

9.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2023ko deialdiari dagozkion "B" lerroko onartutako eta ukatutako eskaeren ebazpena onartzea.

Alkate-udalburuaren 2023ko maiatzaren 10eko proposamenak dio:

Gaia: Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2023ko deialdiari dagozkion "B" lerroko onartutako eta ukatutako eskaeren ebazpena onartzea.

2023ko apirilaren 20n egindako Partaidetza eta Garapen Komunitarioko batzordearen aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, Partaidetza eta Garapen Komunitarioko teknikariak, Onintza Andres Arancetak, bere aktan jasotzen duenez.

"6.2. Garapenaren aldeko lankidetzako dirulaguntzak: 2023 deialdiko "B" lerroko ebazpen proposamena onartzea"

1.- B lerroa: hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzako ekintza edo ekimen puntualetarako dirulaguntzak.

Oñatiko Udalak, 2022ko martxoaren 31n egindako bilkuran Udal Plenoak aho batez ondorengo akordioa onartu zuen: Oñatiko Udalak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako emango dituen dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokor eta espezifikokoak (GAOn argitaratua 2022ko apirilaren 20an, 72.zk.)

Oñatiko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko urtarrilaren 26an egindako bileran, besteak beste, 2023 ekitaldiari dagozkion deialdia egitea onartu zuen (GAOn argitaratua 2023ko otsailaren 17an, 33.zk.)

"B" lerroko, eta 2023ko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako, guztira hogeita hamar mila euroko (30.000,00 €).gastua baimendu da, 0391.481.231.60.01 2023 sailaren kargura.

B lerroko dirulaguntzak eskatzeko epea 2023ko martxoaren 20a artekoa izan da. 7 dirulaguntza eskaera jaso dira epearen barruan.

Partaidetza eta Garapen Komunitarioko sailak jasotako eskaerak aurkeztu ditu, eta oinarri espezifikoetan jasotako puntuazio-irizpideak kontuan hartuta aurre-balorazioa egin du eta batzordearen azterketara jarri da txostena.

Eskatzaileek oinarrietan eskatutako dokumentazioa aurkeztu dute eta guztiek betetzen dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko baldintzak (5. artikulua), ASOCIACIÓN AYUDEMOS A UN NIÑO (G04403101) elkarteak izan ezik (14/03/2022eko dataz, 1301 sarrera erregistro zk., ez baitu egiaztatu "b) Egoitza nagusia edo legez eraturako ordezkartza (egoitza soziala) Oñatiko udalerrian izango dute" baldintza betetzen duenik.

Horrenbestez, Partaidetza eta Garapen Komunitarioko sailak proposatzen du ASOCIACIÓN AYUDEMOS A UN NIÑO elkartearen eskaera ez onartzea. Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordeak proposamena berretsi du.

Oinarri arautzaileen arabera onuradun izateko baldintzak betetzen dituztelako, eta balorazioko txosten teknikoak aurkeztu du Partaidetza eta Garapen Komunitarioko, eta dirulaguntza ematea proposatu, ondorengo eran:

ESKATZAILEA	"B" LERROKO EKINTZA PUNTUALA	PROIEKTUAREN ZENBATEKOA	ESKATUTAKO DIRU	JASOTAKO PUNTUAZIOA	ZURIKETARAK O GUTXIENGO	ORDAINKET A BAKARRA
-------------	------------------------------	-------------------------	-----------------	---------------------	-------------------------	---------------------

O Ñ A T I K O U D A L A

		GUZTIRA (€)	LAGUNTZA (€)	REN ARABERA EMANDAKO DIRULAGUNTZA (€)	ZENBATEKO KONPUTAGARRIA (€)	AURRERATUA (%100)
ASOCIACIÓN "HERMANSOLOÑA" (HERMANAMIENTOS SOLIDARIOS DE OÑATI - OÑATIKO ANAITZE SOLIDARIOAK) IFZ: G75004309 Sarrera zk.: 1287 eta 2776	Ayuda a dinamizadoras de los centros clave de la Red Solidaria "CONTYGO" en Jose C Paz (Argentina)	6.170,00 €	4.600,00 €	4.600,00 €	6.133,33 €	4.600,00 €
ASOCIACIÓN "HERMANSOLOÑA" (HERMANAMIENTOS SOLIDARIOS DE OÑATI - OÑATIKO ANAITZE SOLIDARIOAK) IFZ: G75004309 Sarrera zk.: 1290	Gestión mercancía y acción social a través de taller de Costura del Centro Vasco Toki Eder en la comunidad de Jose C Paz y municipios colindantes (Argentina)	8.440,00 €	5.000,00 €	5.000,00 €	6.666,67 €	5.000,00 €
ASOCIACIÓN "HERMANSOLOÑA" (HERMANAMIENTOS SOLIDARIOS DE OÑATI - OÑATIKO ANAITZE SOLIDARIOAK) IFZ: G75004309 Sarrera zk.: 1339 eta 2835	Proyecto de equipamientos para taller de serigrafía de la Guardería Belén en Jose C Paz (Argentina)	1.948,00 €	1.174,00 €	1.174,00 €	1.565,33 €	1.174,00 €
SAN MIGUEL GOIINGERUA PARROKIA IFZ: R2000295B eta Sarrera zk.: 1448, 2802, 2857 eta 2890	Garantizar una educación de calidad y alimentación adecuada a niños/as y adolescentes de zonas rurales fronterizas y una alimentación equilibrada (República Dominicana)	5.300,00 €	3.300,00 €	3.300,00 €	4.400,00 €	3.300,00 €
SAN MIGUEL GOIINGERUA PARROKIA IFZ: R2000295B Sarrera zk.: 1449	Fundación Renal del Hospital P.Bellini y Dispensario de la Esperilla en Santo Domingo (República Dominicana)	9.500,00 €	7.500,00 €	7.125,00 €	9.500,00 €	7.125,00 €
NOMADA ELKARTE HUMANITARIOA IFZ: G75157834 Sarrera zk.: 1437 eta 2909	Digitalización comedor eco-granja de Seduwa (Nepal)	9.057,00 €	7.500,00 €	6.792,75 €	9.057,00 €	6.792,75 €

*) Oharra: zuriketari dagokion zenbateko konputagarria honako formularen bitartez atera da:

$$\text{Zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria} = \frac{\text{Onartutako dirulagutzaren zenbatekoa} \times 100}{75}$$

Eskatzaileek eabazpenaren jakinarazpenean « zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria » bezala adierazitako zenbatekoaren 100 % zuritu beharko dute gutxienez.

Dirulaguntzari emandako erabileraren justifikazioa aurkezteko epea, gehienez ere, urteko deialdian ezarritakoa da (2023ko azaroaren 30).

Honekin batera, oinarrietan ezarritakoari jarraituz, jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela. Hau horrela, dirulaguntzen ordainketa honela bideratzea proposatzen da:

- *Onarpenarekin batera onartutako dirulaguntzaren %100 emango zaio eskatzaile bakoitzari - ordainketa bakar aurreratua-. Dirulaguntzen xedea kontuan hartuta eta horiek jasotzen dituzten erakundeak irabazi asmorik gabekoak direnez, ez da bermerik eskatuko ordainketa aurreratuengatik.*
- *Eskatzaileak oinarri orokorretan eta espezifikoean zehaztutako betebeharrak bete dituztela eta derrigorrezko agiriak aurkeztu dituztela egiaztatuko du Partaidetza eta Garapen Komunitariorako sailak zuriketa epean. Zuriketa egiteko formulario normalizatuak Oñatiko udalaren dirulaguntzen web atarian eskuratu ahal izango dira.*

- Eskatzaileak jakinarazpenean « zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria » bezala adierazitako zenbateko osoa % zuritu beharko du gutxienez dirulaguntza bere osotasunean jasotzeko, 2023ko azaroaren 30erako berandurenez. Egindako likidazioa aurreratutako kopurua baino txikiagoa bada, dagokion itzulketa-espeditatea izapidetuko da.
- Oinarrietan edo dirulaguntzaren emakidan jarritako edozein betebeharrak betetzen ez bada, berriz aztertuko da dirulaguntza, eta, horren arabera, emandako dirulaguntza baliogabetu, murriztu edo itzuli beharko da.
- Zuriketarako epeak luzaezinak izango dira kasu eta egoera guztietan.

Aurre-ebaluazioa eta balorazioa bere egin eta onartu ditu Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordeak, eta proposamena ebatzi ondoren, Organo Eskumendunari, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeari, aurkezturiko taula hauek onartzea eta dirulaguntzen ordainketa bideratzea proposatzen dio.

Hau guztia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitazeko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da diru-laguntza, diru-laguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Halaber, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Aruaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Oinarrietan zehazten da lerroren batekorako aurreikusitako zenbatekoa agortzen ez bada, esleitu gabeko zenbatekoa gainerako lerroetako eskabideak diruz laguntzeko erabili ahal izango da, betiere dagozkien oinarrietan eskatzen diren baldintzak eta puntuazioa betetzen badituzte. Horregatik, Partaidetza eta Garapen Komunitarioko sailak proposatu du “B” lerroan agortu gabe zenbateko “A” lerroko dirulaguntzetarako erabiltzea bere osotasunean. Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordeak aldeko iritzia agertu du.

Azaldutakoagatik, Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordearen onetsiarekin, Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- ASOCIACIÓN AYUDEMOS A UN NIÑO (G04403101) elkartearen eskaera ez onartzea, (14/03/2023ko dataz, 1301 sarrera erregistro zk.),”b) Egoitza nagusia edo legez eraturako ordezkari (egoitza soziala) Oñatiko udalerrian izango dute” baldintza betetzea egiaztatu ez duelako.

Bigarrena.- Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordeak “B lerroa: hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzako ekintza edo ekimen puntualetarako dirulaguntzak”-ri buruz egindako proposamenean zerrendatutako elkartei dirulaguntzaren onuradun izaera berrestea, 2023ko dirulaguntzen deialdia ebatzea eta 27.991,75 €-ko gastua baimentzea, goian aipatutako xehetasunekin.

Hirugarrena.- “B lerroa: hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzako ekintza edo ekimen puntualetarako dirulaguntzak”-en onarpenarekin batera dirulaguntzaren %100a onartzea eta ordaintzea elkarte bakoitzari -taulan zehaztutako ordainketa bakar aurreratua. Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla eta diruz lagundutako ekintzak benetan egin direla agiri bidez egiaztatu behar dute, kontu zurigarria aurkeztuz 2023ko azaroak 30a (barne) baino lehen.

Aurkeztutako justifikazio aztertu eta egiaztatutako du Udalak.

Laugarrena.- Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkaturko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Bostgarrena.- Dirulaguntza hauen onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Seigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari, diruzainari eta partaidetza teknikariari jakinaraztea.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko Gobernu Batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

Alkatearen O.I.

IDAZKARIA

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023ZDKO0012-ZIURTAGIRIA/CERTIFICADO ()